

Martin Ugalde-n. Bi liburu eta ohar... delakoari buruz lau lerro
 [Hablando con los vascos, 1974 – Síntesis de la historia del País Vasco, 1974]

Apat A. Etxebarne

Zeruko Argia, 621. zk., 1975-01-26: 6.

Astekari honen izenburu hortako artikuluan, autore bat bere buruaz aritu behar izatea, egiazki bitxi da; egiaren kontrako zerbaiti buruz ez bada. *Hablando con los vascos* liburuaz elekatzeko ez dut uste Ugalde adiskideak beharrune aundirik izan duenez, kanore gabeko kritikatzakoak izan dituelako. Kritika bat egin baino lehen, denek dakigu autorearen gaia menderatu behar dela, bai eta egillearen mugak eta trabak ongi jakin eta ohartu, gehiegikeriak eskatzen aritu gabe. Bestela, obe da porruak landatzera joatea.

Euskaldunak izenburu denaren kritikak oharren laburreko iritzia dirudi: ... *Gazteak falta dira...* dio, bai eta... *or ezdagoz denak...* jakina! Halako pellokeriarik irakurri behar ditugula paperetan?; ez dakit zergatik autorea molestatu den ihardestera; zer maillako pentsalari ditugun euskalzale baltsan ikusita, lotsatu behar gara!

(*Boletín de A. de País* delakoaren 1974=1º-2º, kritika xume bat eginik nago ni ere, liburu hortako Barandiaran-en kapituloari buruz: ez dakit irakurleak onartzekoa denez).

Síntesis de la Historia del País Vasco delako bigarren liburuaz, bat bederaren kapritxoari gusto emanez botatzen dituzte hor... *klase borrokazale bat...* deitzen denak; ...*sakonkiago sartzeko bildurra...* aipatzean berriz, *Eusko Lurrak* ere badu kopeta. Funtsapur bat duena txoilik, 4-garren Oharra da, eta gehiago aipatzea merezi luke.

Nere aldetik –*Síntesis*– hortaz (eta *kitzikalari* ausart hoiei) erranen diet, gure Historian, pasatu diren gauzak, iragan bezala kontatu behar ditugula, edo uste izaten den gisara; baina ez *eiki*, guk nahi genukeen bezala. Honela, komedia pollit bat osa dezakegu, baina ez Historia. Eta euskaltzale oro edo gehienei zuzendua, ez alderdi batekoei, dela progre edo dela eskuin. Gure artean, geren utsak aitortzea, jakitun diran batzuek ere ezin dute onartu; bizkitartean, ulertzen den bezala beste sailetan ere, dohain ederra da, eta erakasgarri; Elizak berakusatu duena. Autore batek, kanpoko kritikariei soegin behar die, erne asko; bestela, gure Historia sakon dakitenek eta arrotzek berek irri egiten dute, antuste eta txoriburutzat artzen gaituztela. Euskalzale burubero askok uste dute Literatur Historia geren gustora idatzi leikela, akatsak ixilduz eta alde onak emanduz eta aundituz. Horrela, geren uts larriak ez baitezke behin ere zuzendu eta korreji. Gauden erne, burua galdu gabe.